

**984/2021 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez onesten diren onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera, Barakaldoko Adikzioen OMZko osasun mentaleko unitateburu bat hautatzeko egindako deialdian.**

## AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) zuzendari gerentearen urriaren 22ko 609/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, osasun mentaleko unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez, BOMSeko Santurtziko Adikzioen OMZn (EHAA, 19. zk., 2021eko urtarrilaren 27koa, eta BOE, 31. zk., 2021eko otsailaren 5koa).

Deialdian, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2021eko otsailaren 26an amaitu zen.

BOMSeko zuzendari gerentearen azaroaren 22ko 834/2021 Ebazpenaren bidez, onetsi zen prozesuan onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, BOMSeko zuzendari gerenteak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du, adierazita zein izan diren baztertzeko arrazoiak. Ondoren, agindua emango du, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko.

Aurrekoarekin batera, argitaratu beharrekoa da Balorazio Batzordearen izendapena.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa eta EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, BOMSeko Barakaldoko Adikzioen OMZn osasun mentaleko unitateburu lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onestea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiokete Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2021eko abenduaren 22an

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea  
**Carlos Pereira Rodríguez**

A handwritten signature in blue ink, consisting of several fluid, overlapping loops and strokes, positioned to the right of the text.

## I. ERANSKINA

### BOMS-EKO BARAKALDOKO ADIKZIOEN OMZ-KO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

#### ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- María Natividad Silva Gordón and.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu du.
- 6- Beste batzuk.

## II. ERANSKINA

### BOMS-EKO BARAKALDOKO ADIKZIOEN OMZ-KO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

#### BALORAZIO BATZORDEA

##### Batzordeburu

Titularra: José Ignacio Landaluce Lauzurica jn.

Ordezkoa: Eurne Omaetxebarria Legarra and.

##### Lehen batzordekide

Titularra: Maribel Romo Soler and.

Ordezkoa: Inmaculada Moro Casuso and.

##### Bigarren batzordekide

Titularra: Fernando González Serrano jn.

Ordezkoa: María Mercedes García Plazaola and.

##### Hirugarren batzordekide

Titularra: Rodrigo Oraá Gil jn.

Ordezkoa: Juan Medrano Albeniz jn.

##### Laugarren batzordekide

Titularra: Concepción Corral Blanco and.

Ordezkoa: M<sup>a</sup> Begoña Mendivil Eguiluz and.

##### Idazkari:

Titularra: María Urraza Bernaola and.

Ordezkoa: María Carmen Iglesia Rosende and.